

OÑATIKO EAJREN GERRIA ETA AURPEGIA

Ohituta gaude honezkero, bai aurreko agintaldian eta baita oraingoan ere, EAJk sistematikoki EHBILDUko Udal Taldeak, Udal Gobernuak, proposaturiko proiektuetan kontrako jarrera ikustearekin.

Hondakin bilketa sistemaren kontra, San Martineko plan berriaren kontra, Eltzia proiektuaren kontra...eta agintaldi honetara etorrira, berdintsu jarraitu dute: aparkaleku sistema berriaren kontra, atzeko kale oinezkotzearen kontra, kale garbiketa zerbitzua Udalak berreskuratzearen kontra, eta nola ez 2017ko Udal Aurrekontuetan ere beraien bozka: Kontra.

Hau horrela izanik ere politikan gerria izatea ohikoa den heinean, talde politiko bakoitzak bere mezua helarazten du momentu bakoitzean, bere irizpideen baitan, momentuko egoerak eskatzen duen neurrian. Hori ulergarria da, zilegia da. Gerria izatea, alegia.

Beste kontu bat da aurpegia izatea. Aurpegia behar da norberak egin edo proposatu ez dituen horiek norbere zakuan sartzeko. Berriki jakin dugu sare sozialetatik, Oñatiko EAJk adierazita, 2017ko Aurrekontuan martxan jarritako sozioekonomiako “Co-work” gunea, frontoiko argiak, “Ur Uhinak” parkea, ...beraiei esker jarri direla martxan. Beraiek Kontra bozkatutako aurrekontuari esker, alegia.

Nik dakidala, EHBilduk bere agintaldiko Gobernu programan argi azaldu zuen sormen eta eikintzailetasunerako gunea abian jarriko zuela. Frontoiko argiak? Arazerixan prozesuan herriko haur eta nerabeek proposatu zioten Udalari nik dakidala. Eta ur txorrotak? Bai, ur txorrotak aipatu zituen EAJk baina non, nola zein modutan..inolako proposamenik gabe. Udalak Paisaia Plan baten baitan, galdutako parke bat balioan jarri eta proiektu oso bat aurkeztu zuen. EAJk begi onez ikusi ez zuena; “zentralidadea” falta zitzaiolako edo. Arrakasta izan duela ikusi dutenean, badirudi “zentralidadea” aldatu zaiela. San Lorentzoko Konpostugunea zegoen lekutik kentzeko proposamena beraiei eskerrak etorri da bai; jarri zen hurrengo egunean eskatu zenuten iada kentzeko.

Ulertu nahi dugu, desesperazio puntu bat baduela jarrera honek. Oñatiko Eh Bilduk bere agintaldiko programa izango du bere udal jardunaren oinarri nagusi, eta betiko moduan ekarpenetarako zabalik ditu ateak, kolore guztietako herritarrenak eta baita EAJ taldearenak ere. Gobernuan egonagatik ere oposizioko taldearen laguntza beharrezkoa dela argi dugu EHBildun, herria denon artean egingo dugulako. Baina modu arduratsuan mesedez.

Nerea Zubia Blazquez

Oñatiko EH BILDUko kidea eta zinegotzia.